



## BI ESKU-HARTZE PLAN

### HERRI IRISGARRI ETA GARBI BAT DENONTZAT

LHko ikastetxeetan, Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe ikastetxea eta Ondarreta Herri Eskola.

### MUGIKOR GUTXIAGO!!!


DBHko ikastetxeetan, Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe ikastetxea eta Leizaran BHI.

## LANEN ANTOLAKETA

### HERRI IRISGARRI ETA GARBI BAT DENONTZAT (LH)

laz egindako diagnostikoan, ikusi genuen zein garrantzitsua zen herria herritar guztioi egokitua egotea. Denok ez ditugulako erraztasun berdinak mugitzeko eta batetik bestera joateko. Horretaz gain, jolasean ibiltzen garen parkeak asko zikintzen ditugula ere konturatu ginen. Garbiketa zerbitzukoek egunero garbitzen dituzte baina herritarrok, berriro zikindu egiten ditugu.

Horretan oinarrituz, ikasturte honetan behaketa zehatzago bat egitea erabaki dugu. Urtarrilaren 15an egindako Ikasle Foroan, ikastetxe guztietako ordezkariak elkartu ginen. Lehen hezkuntzako hiru ikastetxeak herria hiru zatitan banatu genuen eta bakoitzak, zegokion zatiko parkeak aztertzea adostu genuen.



Ikastolako taldeak Kale Txiki eta Bazkardo inguruan aritu gara, La Sallekoak Zumeatik Karrikara geratzen direnak aztertu ditugu eta Ondarretakoak, erdigunea, Goiko plazatik Santa Kruzeko zubiraino. Bakoitza gure aldetik, egokitutako parkeen egoera aztertzerira irten gara. Aurkitutako hondakinei argazkiak atera genizkien. Udalean galdetu dugu parkeak noiz garbitzen diren eta garbitu aurretik joaten saiatu gara.

Aurkitutakoa adierazteko, kartelak egin ditugu. Eta gure asmoa da, ekainean, herriko gune ezberdinetan zintzilikatzea, herritarrak ikus ditzaten.

2025 - 2026 ikasturtea

# Andoain

**AZTERTU DUGU... KALEAN ETA PARKEETAN BOTATA DAGOEN ZIKINKERIA.**  
 Ondarreta herri eskolako ikasleek erdigunean aritu gara, Goiko plazatik Santa Kruzeko zubiraino. Aurkitutako hondakinak ikusita, ondorio argi bat atara dugu:  
 "Zaborra ez da berez lurrean hazten. Guk uzten dugu hor."

**Gure herria bizirik!**  
 Eskolako Agenda 2030: Denon artean lortuko dugu.

**4 URRATS GARBIAGO IZATEKO**

**URDIN, HORI, BERDE...**  
 Birziklatzea herriari bizia ematea da.

**NON DAUKAZU?**  
 Zaborra poltsikoan gordetzea ez da kostatzen. Zakarrentzia hor dago!

**PARKEAK GOZATZEKO DIRA**  
 Utzi dena zuk aurkitu nahi zenukeen bezala.

**ZURE MASKOTA, ZURE ARDURA**  
 Ez utzi orrigarririk lurrean! Kakatxoak poltsara.

2025 - 2026 ikasturtea

# Andoain

Aita Larramendi ikastolako ikasleok kalera atera gara, egon daitezkeen irisgarritasun arazoak aztertzeko. Horretaz gain, gure kale, plaza eta parkeetan hondakin ugari dagoela konturatu gara. Ondorio argi bat atara dugu: **Denok gara erantzuleak, parkeak garbi mantentzea gure esku dago!**

**Herri garbia, denon gozamena!**

Andoain garbi, Andoain bizi!

Zaborrontziak daudela ez ahaztu, apropos erabili eta gozatu!

Gu gara etorkizuna, ekin aldaketari!

2025 - 2026 ikasturtea

# Andoain

Andoaingo Eskolako Agenda 2030 taldean gauden ikasleok herriko kale, plaza eta parkeak aztertu ditugu. La Salle Berrozpeko ikasleok Zumeatik Karrikarako bidean aritu gara. Eta bertan aurkitutako zikinkerieri argazkiak atera dizkiegu.

Ateratutako ondorioekin, dekalogo bat sortu dugu.

**PARKEAK GARBI MANTENTZEKO DEKALOGOA**

- 1 Zaborra beti paperontzira bota, beteta badago, eraman zurekin hurrerora.
- 2 Ez utzi hondakinik lurrean (papera, plastikoa, zigarro-muturrak...).
- 3 Birziklatu: erabili dagoen edukiontzia (beira, plastikoa, papera...).
- 4 Erabili berrerabilgarriak: botilak, ontziak eta bestelakoak hondakin gutxiago sortzeko.
- 5 Errespetatu instalazioak: bankuak, jolastokiak eta iturriak zaindu.
- 6 Ez kaltetu landaredia: ez zapaldu loreak, ez apurtu adarrak.
- 7 Eman adibidea: bestek era arauak bete dituzten, jokabide egokiak erakutsi.
- 8 Ez janaria bota lurrrera: animaliak erakartzen ditu eta zikinkeria sortzen du.
- 9 Ez egin pintadarik edo kalterik azpiegituran.
- 10 Masketen jabeek: jaso beti gorotzak eta eraman poltsan paperontzira.

Maiatzaren 14ean bigarren Ikasle Foroa izan genuen eta bertan, lortutako emaitzak partekatu genituen. Guztion artean, hartu beharreko konpromisoak adostu genituen ere.

Honako hauek dira gure konpromisoak:

1. **Bota beti zaborra paperontzira;** beteta badago, eraman gurekin hurrera.
2. **Ez utzi hondakinak lurrian:** papera, plastikoa, pipa azalak...
3. **Urdin, hori berde...** Birziklatzea herriari bizia ematea da.
4. **Erabili berrerabilgarriak:** botilak, ontziak eta bestelakoak hondakin gutxiago sortzeko.
5. **Errespetatu instalazioak:** bankuak, jolastokiak eta iturriak zaindu.
6. **Ez kaltetu landaredia:** ez zapaldu loreak, ez apurtu adarrak.
7. **Izan eredu:** besteek ere arauak bete ditzaten, jokabide egokia erakutsi.
8. **Ez bota janaririk lurrrera:** animaliak erakartzen ditu eta zikinkeria sortzen du.
9. **Ez egin pintadarik edo kalterik** azpiegituretan.
10. **Maskoten jabeek:** jaso beti gorotzak eta eraman poltsan paperontzira.

Horretaz gain, PARKE GARBIKETA egiteko egun bat jartzea erabaki dugu. Ekainean izango da. Horretarako, udal ordezkariak hainbat eskaera egin nahi dizkiegu:

- Zehazten dugun egun horretan, garbitu nahi ditugun parke horietatik gure aurretik kale garbitzaileak ez pasatzea.
- Hiru ikastetxeen artean jasotzen dugun hondakin kopurua punturen batean elkartuta jartzea, herritarrek jabetzeko eta parkeak zaindu behar direla helarazteko.
- Garbiketarako behar dugun materiala izatea: eskularruak, poltsak, agian pintzaren bat...



2025 - 2026 ikasturtea

# Andoain

- 1 **Bota beti zaborra paperontzira;** beteta badago, eraman gurekin hurrera.
- 2 **Ez utzi hondakinak lurrian:** papera, plastikoa, pipa azalak...
- 3 **Urdin, hori berde...** Birziklatzea herriari bizia ematea da.
- 4 **Erabili berrerabilgarriak:** botilak, ontziak eta bestelakoak hondakin gutxiago sortzeko.
- 5 **Errespetatu instalazioak:** bankuak, jolastokiak eta iturriak zaindu.
- 6 **Ez kaltetu landaredia:** ez zapaldu loreak, ez apurtu adarrak.
- 7 **Izan eredu:** besteek ere arauak bete ditzaten, jokabide egokia erakutsi.
- 8 **Ez bota janaririk lurrrera:** animaliak erakartzen ditu eta zikinkeria sortzen du.
- 9 **Ez egin pintadarik edo kalterik** azpiegituretan.
- 10 **Maskoten jabeek:** jaso beti gorotzak eta eraman poltsan paperontzira.


**KONPROMISOAK**  
**LH**

ANDOAINGO UDALA

## MUGIKOR GUTXIAGO!!!

DBHko ikasleok mugikorren eta sare sozialen erabileraren inguruko diagnostikoa burutu dugu. Pil-pilean dagoen gaia da eta nahiz eta jakin gehiegi erabiltzea kaltegarria dela, ez dugu ezer askorik egiten murrizteko. Hori dela eta, antolatutako lanketa honek kontzientziario kutxu bat izatea nahiko genuke.

Burututako lehenengo Ikasle Foroan elkartu ginen eta hainbat erabaki hartu genituen. Batetik, ikastalde batek galdetegi bat sortu du eta gainontzekoekin partekatu.



### GALDEKETA

1. **Zenbat ordu pasatzen dituzu egunero mugikorraren aurrean?**
2. **Mugikorrarekin ari zarenean, zertan pasatzen duzu denbora gehien?**
3. **Zaila egiten al zaizu mugikor gabe egotea?**
4. **Notifikazio bat jaso duzula entzuten duzunean, kostatzen zaizu EZ begiratzea?**
5. **Noizbait SUFRITU al duzu jazarpenik sare sozialen bidez?**
6. **Noizbait IKUSI al duzu jazarpenik sare sozialen bidez?**
7. **Noizbait ERAGIN al duzu ZUK jazarpen egoeraren bat sare sozialen bidez?**

Galdeketa hori DBHko ikasle guztien artean zabaldu dugu eta erantzun asko jaso ditugu: 489 erantzun, hain zuzen ere.

Horien trataera egiteko, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak galderak gure artean banatu genituen eta emaitzekin, kartelak egin ditugu. Hemen datu esanguratsuenak:

- Erabilera tarterik handiena egunean 2-4 ordutakoa da (% 36,6)
- Denbora gehien Instagram, Tik-Tok eta horrelakoetan ibiltzen gara (% 67,6)
- Gehiengoak erantzun dugu ez zaigula zaila egiten mugikorrik gabe egotea (% 70) baina emaitza hori zalantzan jarri dugu.
- Eta ia % 60ak erantzun dugu ez zaigula kostatzen ez begiratzea iristen zaizkigun notifikazioak.
- Bestetik, jazarpenen inguruan, 10 ikasletik 1ek SUFRITU du jazarpenen bat sare sozialetan, 10etik 1ek ERAGIN du jazarpenen bat eta 10etik 4k IKUSI du horrelakoren bat gertatzen.



Bigarren Ikasle Foroan emaitza horiek partekatu ondoren, **KONPROMISO** garrantzitsu bat hartzea adostu dugu:

**"Lagun batek jazarpena jasotzen duela ikusten badugu, norbaiti jakin araziko diogu hori konpontzeko"**



Emaitzen zabalpenaz ere aritu gara hitz egiten eta egingo duguna izango da, kartelen kopiak atera eta herrian zehar kartelak jartzeko dauden paneletan zintzilikatu. Baita ere udal eraikinetan, ikastetxeetan, kiroldegian...





## UDAL ESKOLA FOROA

Maiatzaren 28an Udal ordezkariekin elkartu gara eta ikasturte honetan egindako lanketa azaldu eta gure emaitzak, beraiekin partekatu ditugu. Urtetik urtea gai ezberdinak landuz, herria hobeto ezagutzeko aukera dugu, horrela herrian gure partaidetza sustatuz. Guztion iritzia delako beharrezkoa, baita herriko haurrena eta gazteena ere.

**DENOK BATERA HERRI JASANGARRIAGO BATEN ALDE!**

